




Certamen de Arte 2025

Bases del IV Concurso de Arte de EIA21



AURKIBIDEA

1. PARTE HARTZAILEAK.....	3
2. IZEN EMATEAK.....	3
3. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA.....	3
4. MODALITATEA.....	4
5. GAIA.....	4
6. EPAIMAHAIA.....	4
7. ARTELAN AUKERATUAK.....	4
8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA.....	5
9. ERAKUSKETA.....	5
10. KANAL DIGITALA.....	5
11. SARIAK.....	5
12. SARITU GABEKO LANAK ITZULTZEA.....	6
13. JABETZA INTELEKTUALA.....	6
14. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.....	6
15. OINARRIAK ONARTZEA.....	7

EIA21-en III. ARTE LEHIAKETA (2025)

Beste urte batez, Estudios e Ingeniería Aplicada XXI, SA enpresak lehiaketa hau antolatzen du, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatearekin elkarlanean, artea ingurune akademikotik kanpo sustatzeko eta bertako artista berriak bultzatzeko.

1. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa hau irekita dago 2024/2025 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatutako ikasleentzat, graduakoak, graduondokoak zein doktoregokoak.

2. IZEN EMATEAK

Artelanak aurkezteko, izena eman beharko da esteka honetako inprimakia beteta:

<https://art.eia21.com/participa/>

Bertan datu hauek adierazi beharko dira: izen-abizenak, maila, telefonoa eta helbide elektronikoa. Artelanaren izenburua, deskribapen labur bat, erabilitako teknika eta neurriak ere adierazi beharko dira, eta piezen irudiekin batera bidali.

3. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Inprimakia bidaltzeko epea **2025eko otsailaren 7ko** 15:00ak arte egongo da zabalik.

2025eko otsailaren 12an posta elektronikoz jakinaraziko zaie ikasleei zeintzuk artelan aukeratu diren erakusketarako.

Aukeratutako artelanak **2025eko otsailaren 17 eta 18an** aurkeztu beharko dira. Entregatzeko ordutegia 10:00etatik 13:00etara izango da eraikin nagusiko Gradu Aretoan. Piezak aurkeztuko dira erakutsi beharko diren moduan, euskarri zurrun baten gainean; eta bi dimentsiotako piezen kasuan, horman ipini ahal izateko ainguraketak jarrita.

Artelan bidimentsionalak zein tridimentsionalak ondo enbalatuta aurkeztuko dira, eta kanpoko aldean izen-abizenak idatzita, identifikatzeko, bai eta lanen argazki bat ere.

Artelanen irudiekin batera, 2024/2025 ikasturteko matrikula agiriaren fotokopia aurkeztuko da.

Baldintza horietan entregatzen ez diren artelanak ez dira onartuko.

4. MODALITATEA

Lehiaketara honako hauek aurkeztu ahal izango dira:

- ✓ Artelan bidimentsionalak eta tridimentsionalak .
- ✓ Artelan argitaragabeak eta originalak.
- ✓ Teknika eta formatua guztiz libreak izango dira, eta bereziki baloratuko da formatu handiko lana izatea.
- ✓ Parte hartzaile bakoitzak gehienez ere bi artelan aurkeztu ahal izango ditu.
- ✓ Ezingo dira izan beste lehiaketa batean saritutako artelanak, ezta ere lehiaketa honen aurreko edizioetan aurkeztutakoak.

5. GAIA

Edizio honetako gaia librea izango da.

6. EPAIMAHAIA

Epaimahaia bost lagunek osatuko dute, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearen eta EIA21-en ordezkari izango direnak.

7. ARTELAN AUKERATUAK

Aukeratutako artelanekin erakusketa bat irekiko da 2025eko martxoaren 3an EIA21-en Erandioko bulegoetan (Axpeko erribera, 11 - C1 M101 eraikina), EIA21-en webgunearen bidez ere ikusi ahal izango dena: <https://art.eia21.com/>

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Epaimahaiaren erabakia publikoa eta ezeztazina izango da, eta 2025eko ekainean emango da jakitera.

9. ERAKUSKETA

Aukeratutako lanak **2025eko martxoaren 3tik irailaren 12ra arte** egongo dira ikusgai, egun biak barne, EIA21-en bulegoetan.

2025ean atek zabaltzeko eguna antolatuko da Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleentzat.

10. KANAL DIGITALA

Aukeratutako artelanak webgunearen bidez ere ikusi ahal izango dira 2025eko martxoaren 3tik aurrera: <https://art.eia21.com/>

Webgune horren bidez, aukeratutako lanak ikusteaz gain, botoa eman ahal izango da. Hala ere, boto horiek ez dira izango lotesleak.

11. SARIAK

EIA21-ek sari ekonomiko hauek emango ditu:

- ✓ Lehenengo saria: 3.500 €
- ✓ Bigarren saria: 1.500 €
- ✓ Hirugarren saria: 1.000 €

Sari horiei dagokien atxikipena aplikatuko zaie.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren saria irabaziko duten artelanak EIA21-en ondare izatera pasatuko dira.

12. SARITU GABEKO LANAK ITZULTZEA

Saritu gabeko artelanak **2025eko irailaren 18 eta 19an** jaso beharko dira, interesduna identifikatu ondoren, EIA21-en bulegoetan (Axpeko erribera, 11 - C1 M101 eraikina, 48950 Erandio), laneko orduetan. Epe hori amaituta, ez da izango antolakuntzaren ardura aurkeztutako artelanak itzultzea egileei.

13. JABETZA INTELEKTUALA

Egile eskubideak ez dira inola ere mugatuko, aukeratutako artelanaren komunikazio publikorako eskubidearen lagapena izan ezik.

14. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Deialdira aurkeztzen diren artisten datu pertsonalak EIA21-en (ESTUDIOS E INGENERÍA APLICADA XXI S.A.) ardurapean tratatuko dira. Hau da enpresaren helbidea: Axpeko erribera, 11 - C1 M101 eraikina, 48950 Erandio. Tratamendu horren helburua da kudeatzea deialdia eta etorkizuneko komunikazioak. Datu horiek ez zaizkie hirugarren pertsonari helaraziko eta gorde egingo dira, baldin eta ezinbestekoa edo legitimoa bada beroriek jasotzerakoan zehaztutako helburua lortzeko, salbu eta irabazle suertatzen denarenak, EIA21-en hedabideetan argitaratuko baitira haren irudia eta identifikazio datuak.

Nolanahi ere, datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubideak, tratamendua mugatzeko eskubidea edo datuen aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izango ditu, bai eta datuen eramangarritasunerako eskubidea ere. Eskaera horiek enpresaren bulegoetan egin beharko dira (Axpeko erribera, 11 - C1 M101 eraikina, 48950 Erandio), edo, bestela, mezu elektronikoz (eia@eia21.com).

Era berean, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Espainiako Agentzian.

15. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri hauek onartzea eta horiekin erabat ados egotea, bai eta aurreikusi gabeko arazoak ego egoerak ebazteko epaimahaiak hartzen dituen erabakiak ere.